

# Txakolinaren alde eginiko apostu handi ondo ateratzen ari zaio Lazkano gazteari

"Gaintza" izena duen Lazkanoren baserria Getaria aldeko puntakoa da txakolina mailan

Hace cuatro años Nikolas Lazkano dejó por completo las vacas y se volcó de lleno en la mejora de su producción de txakolí, que tiene una gran tradición en su familia, realizando fuertes inversiones que, según asegura, le están dando buenos resultados, mejores de lo esperado, mostrándose, a sus 36

años, optimista de cara al futuro. A su juicio, los retos más importantes que tiene ante sí el txakolí de la "Denominación de Origen de Getaria" tienen que ver con la mejora a nivel de la producción de uva. La mecanización es una de las asignaturas pendientes en este sentido, según indica.

Nikolas Lazkano, Getariako Gaintza baserriko 36 urtetako baserritarrak orain dela 4 urte behiak guztiz kendu eta bakarrik mahastiekin geratzea erabaki zen. Hau da baserriko ekonomia bi anken gainean, behi eta txakolina, izatea baino nahiago zuen bere baserrian tradizio handia duen azken honetaz bakarrik apostua egin eta, dirudienez, ondo ateratzen ari zaio. "Oso gustoraz nago 4 urte hauetan lortutako emaitzekin. Ez genuen espero hain ondo ibiltzea", dio.

Eta bere apostua ez da nolanahikoa izan gainera. Berarekin batera bere emazteak eta osabak lan egiten duten esplotazio hau inbertsio eta teknologia aldetik puntakoa dela esan daiteke. 9 deposito oxidagaitz

dituen upaletegi edo bodega berri bat, depositoen tenperatura automatikoki kontrolatzeko hotz sistema bat eta boteilaratu eta etiketak jartzeko makinak ditu dagoeneko Nikolas Lazkanok. "Enologoak esaten duenez, bodega txiki mailan espainiar Estatuko aurrenetarikoak gara Getaria alde honetakoak", dio baserritar gazte honek.

Berak 3,5 hektareatik ateratzen duen mahatsarekin egiten du bere txakoli produkzio osoa, urtean 30.000 botila direlarik. Getaria Jatorrizko Deitura edo denominazioaren babespean ari dirén 14 esplotazioek 500.000 botila ateratzen dituzte urtean eta Lazkano gehien ekoizten duten lau esplotazioen artean omen dago.

Nikolas Lazkanok dioen

bezala, bere txakoli produkzioa eta, oro har, Getaria aldekoa saltzeko ez daukate inolako problemarik. "Zenbat eta mahasti gehiago jarri, gero eta txakoli gehiago saltzen da" adierazten du. Egoera arrakastatsu hau lortu ahal izateko, orain dela 8 bat urte sortu zen Getariako Jatorrizko Deitura izatea oso inportantea izan da, bere iritziz.

Txakolina egiterakoan, Zrautz eta Getaria aldea bakarrik babesten duen deitura edo denominazio honetako enologoaren lana baloratzen du asko baserritar honek. "Kalitatezko fermentazioa lortzen dugu berak emandako aholkuekin", dio.

Egia da ere hotz sistema automatizatuarekin aukera gehiago dagoela fermentazio hori hobeto kontrolatu eta produktu iraunkorrago bat ateratzeko. Adibidez, txakolina enbotteillatu aurretik 0 gradurekin mantentzen da 8 egun. Merkaturatu kanpora zabaltzeko derri gorrezko baldintza bihurtzen da aipatu hori.

Mementuz, produkzioaren %80a Donostia aldean saltzen du, %5a inguruko herrietan eta beste %5a Iparraldean. Bere helburua da merkatu hori urrunago eramatea eta horretarako prest dagoela uste du.

"Hotz ekipoak 3 miloi pezeta balio zuen orain dela 4 urte. Bodega guztiek ez daukate. Botila 15 pezeta garestiago ateratzen zaizu, baina luzera begira oso inbertsio ona da", azaltzen du. Dena den, oraingoan lortzen dituen prezioak ere onak direla dio. Getariako Deiturak gutxieneko prezioa zehazten du, iazkoa botilako 335 pezetatakoa zelarrik, eta hortik gora libre da ekoizle bakoitzak nahi duen prezioa ezartzeko.

Sagardoa arloan, laborazio zein promozioari dagokionez, maila ona daukatelakoan dago Lazkano, baina mahats produ-



**"Enologoak esaten duenez, bodega txiki mailan espainiar Estatuko aurrenetarikoak gara Getaria alde honetakoak"**



"Zenbat eta mahasti gehiago jarri, gero eta txakoli gehiago saltzen da" dio Nikolas Lazkanok.

**GETARIAKO TXAKOLINA  
GAINTZA**

Elaborado con uvas procedentes de los viñedos de Getaria. (Servase fino de 8 a 10 grados.)

Tfno (943)140032



GETARIAKO TXAKOLINA DENOMINACIÓN DE ORIGEN CONSEJO REGULADOR AÑO 1989 - CALIF. 4001 -

**ASTARBE  
SAGARDOTEGIA**




**MENDIOLA  
BASERRIA  
ASTIGARRA-  
GA**

TEL.: 55 15 27

**SAGARDOTEGIA  
OTEGYI**

Solla- Enea Baserria  
Entidad Zabaleta Auzoa  
Telf. 36 50 29



LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)